



Woody Allen

Woody Allenek mesanotxean daukan koadernoan idazten ditu bere ideiak. Nola eraiki ezer ideiarik gabe? Ideia ezustean etortzen da askotan, bila joan gabe, eta orduantxe harrapatzen ez badugu, izorrai! Eta ikus entzunezko industriak ere derrigorrezkoak ditu ideiak. Hauek lagunduko digute gero pantallan islatzen bizitzaren grazia eta komedia, edo bizitzaren zama eta drama. Korapilatsua da ideia bat gorpuztea, are gehiago ikus entzunezkoaren mundu gora-beheratsuan, eta bereziki Euskalerrian. Telebistan zein zineman esku-eskura ditugu ikusgai, munduko produktiorik garrantzitsuenak. Askok pentsatuko du hemengo eta kanpoko produkzioen arteko alde nabarmena ideiak direla, baina dirua izango da seguru asko alderik nabarmenena. Bai, litekeena da ideia faktoria geurea baino emankorragoa izatea hangoa, baina ideiatik produkzioa gauzatzera eman beharreko pausak antzekoak han eta hemen. Haiek eta guk lor dezakegu ezdeusetik, ideiatik, izatera, fil-

ma ikustera. Egon, badaude geure artean profesional bikainak, eta formula badakigu, hiru baitira batez ere ikus entzunezko produktio baten oinarriak; lana, lana eta lana. Ideia harrapatu eta mamitu dugunean gidoia idatziko dugu. Eta hitz mordoak daukagunean bilduta, paperean zein ordenadorean, joko dugu produktio etxetara eta saiaturako gara gure gidoia saltzen. Gehienetan esango digute ezetz, baina azkenean baliteke norbaitek esatea baietz, ausartuko dela filma produzitzen. Hasteko, dirua bildu behar da, laguntza guztiak eskatu eta laurdenak lortu, baina batez ere behar da industria honetan sinesten duen norbaitek apustu egitea. Ze hemen ez da egiten ikus entzunezkoa aberasteko, nahiz eta jakin beharko genukeen pelikulak egitea ere badela kultura, badela herri bat kanpoan ezagutzera emateko bidea. Eta behin dirua lortuta, hasi lan taldea osatzen, hasi grabatzeko lekuak bilatzen, hasi aktoreak hautatzen, teknikariak, makilajekoak, jantzitegikoak... Grabatu irudiak ahalik eta

azkarren. Egin muntaia ilusioz, gau eta egun. Jarri musika egokia, agian soinu banda kanpoan grabatuta, hemen egitea garestiago ateratzen delako. Egin muntaia, eman balekoa eta ikusi gure ideiak badaukala forma, badaukala kolorea, badaukala bizia. Eta hala ere zailena geratuko zaigu; saltzea, eta horretan asko omen daukagu ikasteko euskaldunek. Eta horretarako geratzen den dirua beti da urria. Kanpoko pelikuletan aurrekontuaren ia erdia produktua saltzeko izaten da, hemen, ordea, soberan geratu dena. Baina egin dugu pelikula duina, eta ikusiko dute batzuek, gutxik normalki. Askok ezagutzen ditugu Million dollar baby, Titanic, E.T., Agora... baina alboan dauzkagu Ziona perfektua, Ander, Lainoak margotzeko makina, Sukalde kontuak eta igual ezagutzen ez. Eta meritua guztiek handia. Eta lan neketsu horren amaiera ez dela izango zoriontsua igarrita ere, beti gaude hurrengorako ilusioz blai. Eta nik ere Woody Allenek bezala, koadernoan beti gainean.